*Iragarkia, akatsak zuzentzekoa*

2008ko apirilaren 24ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN –78. alean– argitaratutako iragarkia zuzentzea, hau da, Udaletxeko teilatupea edo ganbara Udal Artxibo bilakatzeko egokitzea izeneko administrazio-kontratuaren esleipenerako atera zena.

Iragarki hartan, kontratistari eskatutako sailkapenean akats edo hutsegite bat egin zela kausitu denez, oraingo honetan akats hura zuzenduko da.

— Hau dioen lekuan:

*7. Kontratistak bete behar dituen baldintza zehatzak.*

a) Sailkapena (hala balegoke) (Taldea, azpitaldea eta kategoria): Taldea: G), azpitalde guztiak; kategoria: D).

— Hauxe esan behar du:

*7. Kontratistak bete behar dituen baldintza zehatzak.*

a) Sailkapena (hala balegoke) (Taldea, azpitaldea eta kategoria): Taldea C), azpitalde guztiak; kategoria: D).

Eskaintzak aurkezteko epea beste 26 egun gehiagoan luzatzen da akatsak zuzentzeko iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman eta hurrengo egunetik hasita.

Eibar, 2008ko apirilaren 25a.—Alkatea.

(2003) (4936)

*Anuncio de correccion de errores*

Rectificación del anuncio para la adjudicación de la ejecución de la obra de «Acondicionamiento de la Planta bajo cubierta de la Casa Consistorial para la conversión en Archivo Municipal» (Exp. 013/2008), publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 78, de 24 de abril de 2008.

Habiendose detectado un error en la clasificación exigida al contratista y que figura en el anuncio arriba indicado, se procede a continuación a su rectificación.

— Así, donde dice:

*7. Requisitos específicos del contratista.*

a) Clasificación, en su caso: (Grupo, subgrupos y categoría): Grupo G), todos los subgrupos, Categoría: D).

— Debe decir:

*7. Requisitos específicos del contratista.*

a) Clasificación, en su caso: (Grupo, subgrupos y categoría): Grupo C), todos los subgrupos, Categoría: D).

El plazo para la presentación de ofertas se amplía en 26 días naturales, contados a partir del siguiente al de la publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de éste anuncio de corrección de errores.

Eibar, a 25 de abril de 2008.—El Alcalde.

(2003) (4936)

## ELGETAKO UDALA

*Iragarkia*

Elgetako Udalak, 2008ko apirilaren 3an egindako udal Batzarrean, Terrazak arautzeko udal Erregelamendua lehendabizikoz onartzea erabaki du.

Toki-erregimeneko Oinarrien arautzailea den 7/1985 Legeko 49.artikuluaren arabera, informazio publikoko 30 eguneko epea zabaldu da, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hala edozein pertsona fisiko edo juridiko Udaletxeko Idazkaritzan espedientea aztertzeko aukera izan dezan eta, kasu bada, egokitzat jotzen dituen alegazio eta iragokizunak aurkez ditzan.

Dena den, alegazio edo iradokizunik izango ez balitz, Araudia behin betiko onartzutat joko da, erabaki berria hartu beharrik izan gabe.

Elgeta, 2008ko apirilaren 17a.—Oxel Erostarbe, Alkatea.

(4485)

## AYUNTAMIENTO DE ELGETA

*Anuncio*

El Ayuntamiento de Elgeta, en sesión celebrada el dia 3 de abril de 2008 ha acordado aprobar inicialmente el Reglamento municipal regulador de Terrazas.

De acuerdo con el art. 49 de la ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local, se abre un periodo de 30 dias de información pública, contados a partir del día siguiente de la publicación del presente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa con el objeto de que cualquier persona física o jurídica pueda examinar el expediente en la Secretaría del Ayuntamiento y presentar, en su caso, las alegaciones y sugerenciuas que estime oportunas.

No obstante, de no producirse alegación ni sugerencia alguna el reglamento se tendrá por aprobado definitivamente, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

Elgeta, a 17 de abril de 2008.—El Alcalde, Oxel Erostarbe.

(4485)

### TERRAZEN GAINEKO UDAL-ORDENANTZA (Proposamena 07.11.21)

HELBURUA

*1. artikulua.*

Ordenantza honen helburua da ostalaritzako legeztatutako establezimendu bati araubide tekniko eta juridikoa ipintzea erabilera publikoko espazioetan denbora aldi baterako terraza ipintzeko.

### ORDENANZA MUNICIPAL SOBRE TERRAZAS (Propuesta 07.11.21)

OBJETO

*Artículo 1.*

Es objeto de la presente Ordenanza establecer el régimen técnico y jurídico de la colocación temporalmente de terrazas y veladores en espacios de uso público.

*2. artikulua.*

Terraza moduan ulertzen da mahai eta aulkien multzoa eta berauen instalazio osagarriak, finko edo mugikorrak, hala nola: Itzalkinak, euste armazoiak, toldoak, albo babesak, argiteria, beroa emateko ekipazioak, e.a.

ERAGIN ESPARRUA

*3. artikulua.*

Ordenantza hau aplikagarria da erabilera publikoko espazio guztietan (kale, plaza, ataripe, barruko patio, espazio libre, berde gune, e.a.), horien jabetzaren titularitateaz aparte. Erabilera publikokoa izatea ala ez zehaztuko du hala izatez duen egoerak nola indarrean dagoen antolamenduak.

MUGA OROKORRAK

*4. artikulua.*

Terrazak ezingo du oinezkoen ibilia eragotzi, beraz ezin izango dira terraza ipini metro eta erdiko zabalera baino txikiagoa duten oinezkoen espaloi edo espazioetan, ez eta ondorengoen aurrean: Atariak, minusbaliatuen aparkamendu plazak, larrialdietako irteerak, autobus eta taxien geralekuak, beira, kartoi, zabor ontziak eta kontenedoreak.

*5. artikulua.*

Era berean, debekatu ahal izan da terraza eta beilatokien instalazioa bide segurtasun, herrilan edo herriaren interes publikoko antzerako beste inguruabarrak direla-eta, baina debeku hori gertatzen denean nahikoa arrazoituta egon beharko da.

*6. artikulua.*

Eskaeran zehaztu egin beharko da zenbateko espazioa hartuko duen terrazak.

BALDINTZA BEREZIAK IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA DUTEN KALEETAN

*7. artikulua.*

Babes-hesia jartzea derrigorrezkoa da. Mahai eta aulkiak gutxienez 10 zm-ra kokatuta egon beharko dira babes neurri moduan.

BALDINTZA BEREZIAK OINEZKOEN ESPARRU, PLAZA ETA ESPAZIO LIBREETAN

*8. artikulua.*

Ordenantza honen aplikazioaren ondorioetarako oinezkoen kaletzat hartuko dira, izaera ofizialez hala direnez gainera, hala fisikoki konfiguratuta daudenak, alegia, espaloi eta galtzada barik.

*9. artikulua.*

Soilik onartuko dira terrazak gutxienez metro eta erdiko zabalerako oinezko kaleren batean ipintzea eta terrazaren antolamenduak oinezkoentzako ibilbide zuzena eta oztopo guztietatik aske eta libre utzi beharko ditu.

ESTALDURAK

*10. artikulua.*

Debekatuta dago terrazak zoruan ainguratutako elementuz estaltzea, horretarako konbentziozko ereduko aterki erako eguzkitakoak erabili ahal izango baitira, beti eta zoladurari kalterik eragiten eta gutxienezko pasabide librearen murriztea suposatzen ez dutenean.

*Artículo 2.*

Se entiende por terrazas y veladores el conjunto de las mesas y asientos y de sus instalaciones auxiliares, fijas ó móviles, tales como sombrillas, pescantes, toldos, coberturas, protecciones laterales, alumbrado, dotaciones de calor, etc.

ÁMBITO

*Artículo 3.*

La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios de uso público (calles, plazas, soportales, patios interiores, espacios libres, zonas verdes, etc.), con independencia de su titularidad. La condición de uso público vendrá determinada tanto por la situación de hecho como por el planeamiento vigente.

LIMITACIONES GENERALES

*Artículo 4.*

No podrán colocarse terrazas en aceras o espacios peatonales que tengan una anchura inferior a metro y medio, ni frente a portales, plazas de aparcamiento de minusválidos, salidas de emergencia, paradas de autobuses, taxis y contenedores de vidrio, cartón, basuras.

*Artículo 5.*

Podrá asimismo prohibirse la instalación de terrazas y veladores por razones de seguridad viaria, obras públicas u otras circunstancias similares de interés público, debiendo motivarse suficientemente dicha prohibición.

*Artículo 6.*

En la solicitud, deberá especificarse el espacio que ocupará la terraza.

CONDICIONES DE INSTALACIÓN EN ACERAS DE CALLES CON CIRCULACIÓN RODADA

*Artículo 7*

Es obligatoria la colocación de una barrera de protección. Las mesas y sillas deberán estar colocadas a una distancia mínima de 10 cm como medida de protección.

CONDICIONES DE INSTALACIÓN EN ÁREAS PEATONALES, PLAZAS Y ESPACIOS LIBRES

*Artículo 8.*

A los efectos de aplicación de la Ordenanza tendrán la consideración de calles peatonales aquéllas que, además de serlo con carácter oficial, estén físicamente configuradas como tales, es decir, sin aceras ni calzadas.

*Artículo 9.*

Sólo se admitirán terrazas y veladores en una calle peatonal de metro y medio de ancho mínimo y estarán dispuestas de forma que dejen un itinerario peatonal recto y libre de obstáculos.

COBERTURAS

*Artículo 10.*

Se prohíbe expresamente su cobertura con elementos anclados al suelo pudiendo utilizarse sombrillas de tipo convencional u otros elementos móviles similares siempre que no dañen el pavimento y que no supongan una reducción del paso libre mínimo establecido.

*11. artikulua.*

Eguzkitako eztalkinez kenduta, ezingo da ipini behin behineko inolako estaldurarik.

*12. artikulua.*

Estaldura finkoak ipintzeko dagokion baimena eskatu beharko da. Aurkeztuz: Mota, hartuko dituen metro karratuak, euskarriak, kolorea Hirigintza arauak betetzen dituen edo ez ikusita Udalak dagokion erabakia hartuko du.

## UDAL BAIMENA

*13. artikulua.*

Terraza eta beilatokien zein elementu osagarrien instalazioa egiteko udalaren aldez aurretiko baimena eduki behar da.

## AURKEZTU BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA

*14. artikulua.*

Interesa duen pertsonak Udaletxean aurkeztu behar du dagokion baimen eskaera, bertan azalduz honako zehaztasun hauek:

a) Bere izena eta bi abizenak;

b) Helbidea, telefonoa eta NAN edo IFZko datuak;

c) Merkataritza izena eta jarduera nagusiaren enplazamendua; eta

d) Aurreikusitako zenbat mahai, elementu osagarrien ezaugarriak eta instalaziorako nahi duen epea (hilabeteak).

## EBAZPENA

*15. artikulua.*

Aurreko artikuluetan eskatutako baldintzak betez eskaera aurkeztuta eta aldez aurretiko dagozkion txostenak aztertu ondoren, agintedun udal organoak hilabeteko arauzko epearen barruan emango du ebazpena.

## BAIMENAREN BALDINTZAPENAK

*16. artikulua.*

Baimena ematen duen dokumentuan finkatuko dira instalazioa eta elementu osagarriek bete behar dituzten baldintzak: Enplazamendu zehaztua, okupatu beharreko azalera, mahai eta aulkien zenbatekoa, baimena indarrean izango den aldia, ordutegia eta gainerako beharrezko irizten diren zehaztasunak.

*17. artikulua.*

Emandako baimena beti ulertuko da emanda dagoela jabetza eskubidea eta hirugarren baten kalterik izatearen salbu, eta ezin izango da baimena emanda edukitzea alegatzeko erabili bere jardueraren eragiketan pertsona titularrak izan dezakeen erantzukizun zibil edo penala salbuetsi edo gutxitzeko. Baimen hori emanda izateak ez dio kentzen titularrari, hala dagokion kasuetan, beste baimen batzuk lortu behar izateaz.

*18. artikulua.*

Baimena beti ulertu behar da behin behineko izaeraz erabilia izateko eman dela eta Udal Agintaritzak agindu ahal du, arrazoibidez azalduta, baimendutako instalazioak bide publikotik erretiratzeko inolako kalte-ordain eskubiderik gabe, trafiko, urbanizazio, obra edo interes orokorreko beste edozein inguru abarrek horrela egite aholkatzen dutenean.

*Artículo 11.*

No se podrá instalar ningún tipo de cobertura provisional a parte de las sombrillas.

*Artículo 12.*

Habrá que realizar la solicitud pertinente para la colocación de cubiertas fijas, presentando, junto a la misma, el tipo de cubierta, metros cuadrados que ocupa, color, etc. El Ayuntamiento tomará su decisión en función del cumplimiento o no de las normas urbanas.

## AUTORIZACIÓN MUNICIPAL

*Artículo 13.*

La instalación de terrazas y veladores, así como de sus elementos auxiliares, queda sujeta a la previa autorización municipal.

## DOCUMENTACIÓN ADJUNTA

*Artículo 14.*

La persona interesada deberá presentar ante el Ayuntamiento la correspondiente solicitud de autorización haciendo constar:

a) Su nombre y dos apellidos;

b) Los datos relativos al domicilio, teléfono y DNI o CIF;

c) El nombre comercial y el emplazamiento de la actividad principal; y,

d) El número previsto de mesas, características de elementos auxiliares y el plazo pretendido (en meses) de la instalación.

## RESOLUCIÓN

*Artículo 15.*

Formulada la petición, en los términos exigidos en los artículos precedentes y previos los pertinentes informes, el órgano municipal competente resolverá en el plazo reglamentario de un mes.

## CONDICIONES DE LA AUTORIZACIÓN

*Artículo 16.*

En el documento de la autorización se fijarán las condiciones de la instalación y elementos auxiliares: Emplazamiento detallado, superficie a ocupar, número de mesas y sillas, período de vigencia de la autorización, horario y demás particularidades que se estimen necesarias.

*Artículo 17.*

La autorización siempre se entenderá otorgada salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero, no pudiendo ser invocada para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que hubiera incurrido la persona titular en el ejercicio de sus actividades. Dicha autorización no exime de la necesidad, en su caso, de obtener otras autorizaciones.

*Artículo 18.*

La autorización se extenderá siempre con carácter de precario y la Autoridad Municipal podrá ordenar, de forma razonada, la retirada de la vía pública sin derecho a indemnización alguna de las Instalaciones autorizadas, cuando circunstancias de tráfico, urbanización, obras o cualquier otra de interés general así lo aconsejen.

*19.artikulua.*

Baimenaren titularra den pertsona behartuta geratuko da konpontzeko instalazioaren ondorioz bide publikoan sor daitezkeen kalteak.

BAIMEN ALDIA

*20. artikulua.*

Indar aldia amaitutakoan, baimenaren titularra den pertsonak edo, bere kasuan, dagokion establezimendukoak, instalazio guztia kendu beharko du, bide publikoa lehengo egoeran utziz, okupazioari uzten zaionetik aste 1eko gehienezko epearen barruan.

BAIMENA BERRITZEA

*21. artikulua.*

Baimena emandakoan, jarraiko urteetarako baimena berritu nahi den bakoitzean, eta termino eta baldintza berdinetan, interesa duen pertsonak berriro eskatu beharko du.

*22. artikulua.*

Terraza ipini gura duenak aurrekoan emandako baimena aurkeztu dezake edo baimen berria eskatu.

ORDUTEGIAK

*23. artikulua.*

Terrazen zerbitzu ordutegia establezimenduak duen parekoa izango da, gauetan ordutegia 01:00etara murriztuz. Auzotarren lasaitasun eskubidea errespetatzeko beharrezko neurriak hartuko dira, zarata, eta bestelako iskanbilak debekatuz.

*24. artikulua.*

Oinezkoen esparru eta kaleetan instalazio ordutegiak ez du oztopatu behar ez trafikoa ez zama-lanak.

*25. artikulua.*

Terraza edo beilatokiaren zerbitzuko ordutegia amaitutakoan bere elementu guztiak batu beharko dira isiltasunez.

BAIMENAREN TITULARRAREN BETEBEHARRAK

*26. artikulua.*

Baimenaren titularra den pertsona behartuta dago okupatuko den lurreko zorua nola instalazioa bera eta bere elementu osagarriak behar den moduan mantentzen. Bitarteko guztiak erabiliko ditu, garbitasun, segurtasun eta txukuntasun baldintzak betetzeko, hala nola paperontziak, hautsontziak, e.a.

DISZIPLINA ERREGIMENA

*27. artikulua.*

Baimenik gabeko instalazioak edo baimen aldia amaitu zaien terrazak erretiratu ahal izango ditu Udalak, kautelagatik eta berehala, terraza edo edozein elementu osagarri bide publikoan baimenik gabe ipinita agertzen dena eta horretarako izendatutako lekuan gordailuan ipintzea horiek, pertsona erantzulearen kostura, araudiz legozkiokeen isunen ipintzearen kalte barik.

*Artículo 19.*

La persona titular de la autorización queda obligada a reparar cuantos daños se produzcan en la vía pública como consecuencia de la instalación.

VIGENCIA DEL PERMISO

*Artículo 20.*

Transcurrido el período de vigencia, la persona titular de la autorización o, en su caso, la del establecimiento correspondiente, deberá retirar toda la instalación devolviendo la vía pública a su estado anterior en el plazo máximo de una semana desde el cese de la ocupación.

RENOVACIÓN DE LICENCIA

*Artículo 21.*

Una vez concedida la autorización, cada vez que se pretenda su renovación para sucesivas anualidades y en los mismos términos y condiciones, la persona interesada habrá de solicitarla de nuevo.

*Artículo 22.*

La persona interesada en colocar una terraza podrá presentar, en su caso, el permiso concedido anteriormente o solicitar uno nuevo.

HORARIO

*Artículo 23.*

El horario del servicio de terraza será el mismo que el del establecimiento, limitando el horario nocturno a la 01:00. Se tomarán cuantas medidas sean necesarias para respetar la tranquilidad de los vecinos, prohibiendo ruidos y demás escándalos.

*Artículo 24.*

En las zonas y calles peatonales el horario de instalación no obstaculizará el tráfico y las labores de carga y descarga.

*Artículo 25.*

Finalizado el horario de funcionamiento de la terraza o velador deberán recogerse de manera silenciosa todos sus elementos.

OBLIGACIONES DEL TITULAR DEL PERMISO

*Artículo 26.*

La persona titular de la autorización queda obligada al correcto mantenimiento del suelo que ocupe la terraza y de la instalación y demás complementos de misma, para lo que utilizará todos los recursos para cumplir con las condiciones de limpieza, seguridad y decencia, tales como papeleras, ceniceros, etc.

RÉGIMEN DISCIPLINARIO

*Artículo 27.*

La Autoridad Municipal podrá retirar, de forma cautelar e inmediata, cualquier instalación sin autorización o terraza con permiso agotado instalado en vía pública y proceder a su depósito en lugar designado para ello, a costa de la persona responsable, sin perjuicio de la imposición de las sanciones reglamentarias.

*28. artikulua.*

Baimena emateko dokumentuan zehaztutako betebeharrak ez betetzeak, edo Ordenantza honetan jasota eta erabakita dauden arauak ez betetzeak, indarrean dauden legeen araberako ekonomi isuna ezartzea erakarriko dute, baimena atzera bota eta indarrik gabe uztearen kalte barik eta jarraiko eta ondorengo instalazioa berehala erretiratu beharrizanaz, udal errekerimenduari kasurik egiten ez zaionkasuetan. Gainera, mugak urratze edo arau hauste horiek suposatu ahal dute arrazoi nahiko hurrengo ekitaldietan baimen berririk ez emateko edo ez onartzeko.

*29. artikulua.*

Ordenantza honetan jasota dauden suposatuetan bide publikoan instalatutako elementuak erretiratzeko edo egindako kalteak konpontzeko udalak emandako aginduari kasurik egiten ez zaion kasuan, administrazioak berak jasoko du instalazioa, eta horretarako izendatutako lekuan gordailuan geratuko dira; handik erretiratu ahal izango ditu jabeak hiru hialabeteren epean, aldez aurretik dagozkion tasak eta suertatuko gastu guztiak ordaindu ondoren.

## ARAU HAUSTE ETA ISUNAK

*30. artikulua.*

Arau-hauste administratibotzat joko dira honako Ordenantza honetako xedapenen aurkako egintzak edo ez egiteak, eta horietaz erantzun beharko du baimena jaso duen titularrak edo, kasuan kasuko, dagokion establezimenduko titularrak.

*31. artikulua.*

Arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

*32. artikulua.*

Arau-hauste oso larritzat joko dira honako hauek:

32.1. Terrazak ipintzea baimen barik edo baimendu denbora eta espazioaren gainditzea garrantzitsua izanik beste pertsona batzuen eskubide zilegien egikaritzapenari edo lasaitasunari, ekintzaren garapen normalari eragozpenak sortu edo osasungarritasunari era larrian eragiten badiote.

32.2. Zerbitzu Publiko baten funtzionamendu normala eragoztea edo larriki oztopatzea edo arau-haustezko jarduerak gelditzeko Udaletik emandako aginduei desobedientzia larria egitea.

32.3. Zerbitzu Publiko baten azpiegiturak, instalazioak edo elementuak era larriki kaltetzeko ekintzak.

32.4. Erabilera eskubidea duten beste pertsona batzuei espazio publiko batena erabilera debekatzea eta galeraztea.

32.5. Espazio publikoari, bere instalazioei edo elementuei kaltea sor diezaioketen ekintzak.

*33. artikulua.*

Arau-hauste larriak izango dira, ondorengo hauek:

33.1. Mahaiak eta aulkiak leku ezberdinean ipintzea.

33.2. Baimendutako orduarekiko ordu bete gehiagoz muga ordutegia gainditzea.

33.3. Terrazak ipintzea egunero oztopo izango den eran edo zailtasun larriaz oinezkoek eta ibilgailuek zuzen zirkula dezaten.

33.4. Terraza ipintzeko lekurako baimendutako elementu osagarrien ezaugarriak ez betetzeak.

33.5. Baimen barik 7 egun baino luzeagoko denboraz jarduera hastea edo luzatzea.

*Artículo 28.*

El incumplimiento de las condiciones de la autorización, o de los preceptos recogidos en la presente Ordenanza, dará lugar a la imposición de una sanción económica en los términos de la legislación vigente, previa instrucción del correspondiente expediente, sin perjuicio de la revocación de la autorización y consiguiente retirada inmediata de la instalación, en los casos de desobediencia al requerimiento municipal. Además dichas extralimitaciones o infracciones podrán suponer motivo para denegación de autorizaciones en ejercicios posteriores.

*Artículo 29.*

Cuando se hiciera caso omiso de la orden municipal de reparación de daños o retirada de los elementos instalados en vía pública, en los supuestos recogidos en esta Ordenanza, la Administración procederá a su levantamiento, quedando depositados en el lugar designado para ello, de donde podrán ser retirados por la propiedad, previo el abono de las tasas y gastos correspondientes.

## INFRACCIONES Y SANCIONES

*Artículo 30.*

Se considerarán infracciones administrativas las acciones u omisiones que contravengan las disposiciones de la presente Ordenanza, de lo que responderá el titular de la autorización o, en su caso, del establecimiento relacionado.

*Artículo 31.*

Las infracciones se clasifican en muy graves, graves y leves.

*Artículo 32.*

Serán consideradas infracciones muy graves las siguientes:

32.1. La colocación de terrazas sin autorización o la extralimitación importante en cuanto al espacio u horario autorizados que afecte de manera grave a la tranquilidad o al ejercicio de derechos legítimos de otras personas, al normal desarrollo de otras actividades o a la salubridad.

32.2. El impedimento o la grave obstrucción al normal funcionamiento de un servicio público o la desobediencia grave a las órdenes de los Agentes de la Autoridad para cese de actividades infractoras.

32.3. Los actos de deterioro grave de infraestructuras, instalaciones o elementos de un servicio público.

32.4. El impedimento del uso de un espacio público por otra u otras personas con derecho a su utilización.

32.5. Los actos que supongan un deterioro del espacio público o de sus instalaciones y elementos.

*Artículo 33.*

Serán consideradas infracciones graves las siguientes:

33.1. La colocación de mesas y sillas en lugar distinto.

33.2. La extralimitación horaria no superior a una hora a la permitida.

33.3. La colocación de terrazas de manera que supongan obstáculo habitual o dificultad grave para la correcta circulación de peatones o vehículos.

33.4. El incumplimiento de las condiciones de localización de los elementos auxiliares autorizados.

33.5. El inicio o prolongación de la actividad por tiempo superior a siete días sin la expresa autorización.

33.6. Eskatutako lekuaren garbitasun falta jarraia. Ondorio horietarako behin eta berrikotasuna legez jotzen da hogeitahamar egun naturaleko epe barruan idatzizko hiru kargu hartze edo ohartarazpenak jasotzea.

33.7. Baimendutako elementuen bilketa zaratatsua eta garaiz kanpokoagatik sortutako eragozpen eta endreduak, hala nola elementu horiek baimenik gabeko lekuan pilatzea.

*34. artikulua.*

Arau-hauste arina izango da Ordenantza honetako xedapenen aurkakoa, baina bere garrantzia txikiagatik edo nahasmen intentsitateagatik oso larritzat edo larritzat jo ez den portaera.

*35. artikulua.*

Goian adierazitako arau-hausteei ondorengo isunak ipiniko zaizkie:

35.1. Arau-hauste oso larriak: 1.001 euro eta 2.000 euro arteko isuna.

35.2. Arau-hauste larriak: 501 euro eta 1.000 euro arteko isuna.

35.3. Arau-hauste arinak: 500 euro eta euro 1 arteko isuna.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Egun indarrean dauden terraza eta beilatokien instalazio baimen guztiak egokitu eta moldatu beharko dira Ordenantza honetan erabaki eta ezarritako betebehar eta baldintzetara, gehienez ere hiru hileko epearen barruan, ordenantza hau indarrean sartzen den egunaren biharamunetik zenbatuta.

XEDAPEN OROKORRAK

*Lehena:* Ordenantza hau indarrean sartuko da bere testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu azaldu ondorengo 15 lanegun pasatu ondoren.

*Bigarrena:* Hazienda batzordearen esku uzten da baimenak ematea eta Ordenantza honen interpretazio, argiketa eta garapena egiteko, administrazio prozedura erkideaz eta herriaren erabilerako ondasunen erabilerari buruz indarrean dagoen legedian jasotako printzipioen arabera.

33.6. La reiterada falta de limpieza del espacio afectado. A estos efectos se considerará reiteración la acumulación de tres apercibimientos por escrito en un periodo de tiempo seguido inferior a treinta días naturales.

33.7. Las molestias causadas por la recogida no silenciosa o inoportuna de los elementos autorizados, así como su depósito en lugar no permitido.

*Artículo 34.*

Se considerará infracción leve la contravención de las disposiciones de esta Ordenanza que por su escasa importancia o de intensidad de la perturbación no haya sido calificada como grave o muy grave.

*Artículo 35.*

A las anteriores infracciones corresponderán las siguientes sanciones:

35.1. Infracciones muy graves: Multa de 1.001 euros hasta 2.000 euros.

35.2. Infracciones graves: Multa de 501 euros hasta 1.000 euros.

35.3. Infracciones leves: Multa de hasta 500 euros.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Todas las autorizaciones de instalación de terrazas y veladores que en la actualidad se encuentren vigentes deberán acomodarse a las condiciones dispuestas en la presente Ordenanza en el plazo máximo de tres meses a contar desde el día siguiente a su entrada en vigor.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera:* La presente Ordenanza entrará en vigor una vez transcurridos quince días hábiles desde la publicación de su texto íntegro en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Segunda:* Se autoriza expresamente a la comisión de hacienda para el otorgamiento de autorizaciones así como para interpretar, aclarar y desarrollar la presente Ordenanza, conforme a los principios recogidos en la vigente legislación sobre procedimiento administrativo común y de utilización de bienes de uso público.

---

## HONDARRIBIKO UDALA

*Iragarkia*

Alkate jaunak 2008ko martxoaren 31n Tokiko Gobernu Batzarrean Promociones Izotzaldea SL enpresak sustaturiko»48.1 Portua» EUren Mugaketa Proiektua onartu zuelarik, jendaurrean erakutsiko da, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN azaldu ondorengo hogei lanegunetan zehar udaleko Iragarki Taulan eta «Berria» eta «Diario Vasco» egunkarietan. Interesatuei ere jakinaraziko zaie.

Egun horietan eragindako edonork Udal Bulego Teknikoan ikusi ahal izango ditu eta beharrezkoak deritzon alegazioak egin ahal izango ditu.

Hondarribia, 2008ko apirilaren 14a.—Aitor Kerejeta Cid, Alkatea.

(1530) (4968)

## AYUNTAMIENTO DE HONDARRIBIA

*Anuncio*

Aprobado inicialmente por el Sr. Alcalde, en sesión celebrada por la Junta Local de Gobierno, el día 31 de marzo de 2008, el Proyecto de Delimitación de la Unidad de Ejecución 48.1 Portua promovido por Promociones Izotzaldea, se somete a información pública por plazo de veinte días hábiles, contados a partir del siguiente al de la inserción de este Anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, así como en el Tablón de Anuncios y en los periódicos «Berria» y «El Diario Vasco», así como notificación individualizada a los interesados.

Durante el citado plazo podrá ser examinado en la Oficina Técnica del Ayuntamiento por cuantas personas se consideren afectadas y formular cuantas alegaciones estimen pertinentes.

Hondarribia, a 14 de abril de 2008.—El Alcalde, Aitor Kerejeta Cid.

(1530) (4968)